

2010eko Jaiaren aurkezpena - Amurrio

Otsailak 3an **Euskal Eskola Publikoaren jaiaren** leloa, **GEROA LANDUZ**, eta irudia aurkeztu genituen Amurrioko Udaletxean. Dakizuen bezala, ekainaren 6an ospatuko dugu **Aiara Bailaran dagoen Amurrion**. Pablo Isasi Amurrioko alkateak, Ana Eizagirre EHIGeko koordinatzaileak, Cristina Díez Denon Eskolako presidentek eta Grafikeko Xabier Gorostiagak egin zuten aurkezpena bertako eskolako ikasleen laguntzarekin. Bertan izan ziren ere Amurrio eta Aiara Bailarako ikastetxeetako ordezkariak, kultur elkarteetako ordezkariak eta Aiarako Eskualdeko presidentea ere.

Jaiaren web gunean aurkituko duzue informazio gehiago: www.ehige-jaiia.org



Jairako Materialak

Urtero bezala jairako hainbat material atera da saltzeko (unisex kamisetak, nesken-tzako kamisetak, umeentzako kamisetak eta ohar blok bat). Horrelako produkturen bat erosteko interesa duzuenok **Denon Eskolaren egoitzan egin dezakezue edozein ostegunetan arratsaldeko 5etatik 7etara**. Horrez gain Vitoria-Gasteizko El Boulevard merkatalgunean salmenta puntu bat ezartzeko gestioak egiten ari gara hilabete bakoitzeko larunbat batean bertan aipatutako materiala zuzenean saldu ahal izateko. Aukera horren inguruko informazio gehiago izanez gero jakinaraziko dizuegu. Bestalde zuen ikastetxean saltzeko interesa duzuen IGEek Federazioan eska dezakezue erakusteko materialaren ale batzuk bidaltzea.

Agenda

Martxoak 6, larunbata

Vitoria-Gasteizko Guraso Eskolen
Jardunaldia

Hizlaria: Emilio Calatayud epailea
9:00etan Europa Jauregian

Martxoak 15, astelehena

Denon Eskolako Zuzendaritza Batzardea
18:30etan Denon Eskolan

Martxoak 11, osteguna

Kafe-Tertulia: Jantokiak eta Garraioa

(Eguraldi txarragatik otsailak 11n
bertan behera utzitakoa)
18:30etan Denon Eskolan

Martxoak 27, larunbata

Eskualdetako Eskolen II. Topaketa
9:00etan Denon Eskolan

Ospatutako Tailer-Ikastaroak

Atzerriko familiak eskolan

Zein faktore eta errealitatek baldintzatzen du gurasoen parte hartzea euskal eskola publikoan? Zein ekintza positibo sustatu ahal dugu Denon Eskolatik parte hartze hori bultzatzeko?

Zalantza bi horiek abiapuntutzat izanik haien seme-alabak Vitoria-Gasteizko ikastetxe publikoetan dauzkaten guraso atzerritarrekin lan egin dugu Prometea enpresak gidatutako tailerretan. Aipatutako tailerrek urtarrilaren 19 eta 26an ospatu ziren Denon Eskolaren egoitzan. Bertatik aterako diren ondorioak txosten batean bilduko dira eta Denon Eskolarentzat hurrengo hilabeteetarako lan ildoak eta konpromisoak zehazteko balioko du.

AJAri buruzko ikastaroa

Joan den urtarrileko 30ean ikastetxeetako AJA-ri (Antolaketa eta Jarduera Araudia) buruzko ikastaroa ospatu genuen Luis Otanoren eskutik. Lerro hauetatik ikastaro interesgarri honetan izan ziren Arabako ikastetxe publikoetako guraso elkarteetako ordezkari zein zuzendaritza taldeetako kide guztien parte hartze aktiboa eskertu nahi dugu.

Taller TELP

Otsailaren 2, 9 eta 23an TELP Tailerra (Taller d'Espai Lingüístic Personal) ospatu dugu Denon Eskolako Euskara Batzarde eta Zuzendaritza Batzordeko kideekin. Zenbatetan gertatu zaigu denda, erakunde edo beste edozein tokitara joan eta euskaraz hitz egiten hasterakoan, beste pertsonak euskararik ez dakiela esan eta deseroso sentitzea? Edo alderantziz, norbaitekin gaztelaniaz hitz egiten hasi eta euskaraz dakienaz ondoren konturatzea? Nola lor dezakegu egoera horien aurrean eroso sentitu eta naturaltasunez jokatzeko?

TELP tailerrari esker, horrelako egoeratan dugun jokabideaz ohartzeko gara eta nola jokatu behar dugun ikusten dugu. Hobetzeko ditugun ohituretan eragiteko baliabideak eskaintzen dizkigu, ohitura eta esperientzia propioetan arreta berezia jarritz. Izan ere, inguruko hizkuntza ohiturak euskalduntzeko, lehenik norberarenak aztertu eta zuzendu beharko ditugu. Azken finean, euskaraz mintzatzeak ez digu zalantzarik sortu behar eta modu erosoan jarduteko aukera gure esku dagoela argi izan behar dugu.

IGEentzako galdesortak

Guraso Elkarteetara zuen ikastetxeetako egoera eta IGEaren zein orokorrean ikastetxearen funtzionamenduaren berri izateko galdesorta bat bidali dizuegu. Ahalik eta azkarren betetzea eta Federazioa bidaltzea erregutzen dizuegu jasotako informazio guztiarekin ikastetxetako eta Guraso Elkarteetako egoera orokorraren txosten diagnostiko egin ahal dezagun.

